



GIZARTEAK ESKOLA ELEANITZA BEHAR DU

■ **UCEV**
Unió de
Cooperatives
d'Ensenyament
Valencianes

Leku eta une bakoitzean gizarte- eta ekonomia-inguruneak sortzen dituen premia eta eskakizunei erantzun behar die eskolak, baina bere hezkuntza-elkartearen sustraietan dauden kultura eta tradizioekin koherentea izanez egin behar du hori. Ez luke inolako zentzurik izango gure idiosinkrasiari, gure hizkuntza-aberastasunari, gure kultura-adierazpen garrantzitsuenei... arrotz zaien hezkuntza-eredu baten alde egiteak. Gaur egun garen bezalakoak izatea ekarri duen guztia baliarazi behar du etorkizunerako irakaskuntzak, eta egungo gizarteak eskatzen digun bikaintasunerantz ibiltzen saiatu behar dugu.

Gaur egun denok bizi garen gizarte globalizatu honen garapen azeleratuak guztiz ezinbesteko bihurtzen du hizkuntzak ikastea. Eta testuinguru honetan, valentziarrok aukera handitzat hartu behar dugu elebitasunaz natural baliatzea. Valentzieraz ikasten duen ikasleak bi hizkuntza menderatzen ditu, eta oinarri eta jarrera hobeak ditu beste hizkuntza batzuk ikasteko ere.

Adierazpen hau UCEVen sartuta dauden irakaskuntzako kooperatibek eleaniztasunaz egindako hausnarketa da. Bere kezka eta planteamenduak, bere esperientziak eta uste sendoak biltzen ditu.



hezkuntza
ADIERAZPENA

Valentziako irakaskuntzako kooperatiben lehen adierazpenak eskola inklusiboaren alde egin zuen eta kontzeptu hori definitu zuen. Horregatik, bigarren adierazpen honek **eskola eleaniztuna** eraiki beharra azaltzen du.

Gizarte konplexu batean bete-betean garatzeko beharrezko baliabideak dituzten pertsonak hezi eta prestatu behar ditu eskolak, errealitatea hobeto ezagutzeko, berarekin eraginkortasunez eragin-truke edo interakzioan aritzeko eta harremanak arrakastaz kudeatzeko. Munduan zer gertatzen den ulertu nahi dugu, gertakizunak esanahiz bete eta gure erantzunak eta ekintzak egokiago egituratzen asmatu nahi dugu; ikasle bakoitzari kontzienteago, kritikago eta gaituago izaten lagundu nahi diogu. Horren haritik, hizkuntza funtsezkoa da mundua deskribatu eta esanahiz hornitzen duen neurrian. Hizkuntza bat



ondo ikasteak, beraz, ikaragarriko garrantzia du prestakuntza- eta hazkunde-prozesuan.

Mundu-mailako gizartean komunikazioaren garapen azeleratuak –XXI. mendeko lehen hamarkadako eraldaketen alderdi nagusietako



bat da hori– ezinbesteko bihurtzen du hizkuntzak ikastea, gero gaitasunez erabili ahal izateko. Ez bakarrik lehenengo eta bigarren hizkuntza, baita hirugarrena eta laugarrena ere...






Gizarte modernoan gero eta gehiago honela definitzen da gaitasuna: norberaren ezagupenak, diren eta konplexuenak direla ere, berrikuntzaren, ekitatearen eta aurrerapenaren zerbitzura jartzeko gai izatea. Kultura askoren eraginak bizitzen eta norberaren nortasuna babesten jakitea helburu bakarra dira, hor jokatzeko dugularik izateko eta hazteko gaitasuna. Hizkuntza batzuek beste batzuk (erabilgarritasunagatik, edo aginte ekonomiko, politiko, kultural eta abarregatik) mendean hartzen dituzteneko ereduak erabakitasunez eta ausarki baztertu behar dira hezkuntzan.

Hizkuntza-aberastasuna gizarte modernoan funtsezko ezaugarria da, besteenganako begirunearen gainean eraikitzen ahalegintzen baldin badira. Beraz, eskola eleaniztuna da oinarrizko komunikazio-gaitasuna ongien eskain diezaiekeena berak hezi nahi dituen neska-mutikoei. Ez dugu ahaztu behar hizkuntza bakoitzak errealitatearen ikuspegi berezi bat duela eta, zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, orduan eta erraztasun handiagoz ebalua ditzakegula ikuspuntu desberdinak, eta sentiberagoak izango garela enpatia, elkartruke eta bizikidetzarekiko.

Nola planteatu behar da hizkuntzak ikastea gizarte eleaniztun batean:

1

Gizarte eleaniztunean hainbat hizkuntza erraztasunez hitz eginez elkar erlazionatzen dira gizabanakoak. Eskola eleaniztunak garapen pertsonal eta kulturalerako aukera handiagoak eskaintzen dizkie bere barruko guztiei, ikasleei nahiz irakasleei.



2

Hizkuntzekiko Europar Esparrua da lorturiko hizkuntza-gaitasunaren erreferentea eta hizkuntzen ikaskuntzaren jarraipen orokor eta saiatua ahalbidetzen du. Halaber, unibertsitateen eta akademiaren titulu

ofizialen arteko baliokidetasuna ziurtatzen du, eta horrek herritarren mugikortasuna ere errazten du.



3


Ikaskuntza-irakaskuntza ikuspegi berri batetik planteatu behar da. Hizkuntzak ez dira bakaturik ikasten, elkar erlazionatuz baizik. Egia esateko, hizkuntza bat jakiteak beste batzuk ikasten laguntzen du eta komunikazio-gaitasuna indartzen du. Beraz, hizkuntzen irakaskuntza komunikazioan eta oinarrizko hizkuntza-trebetasunen (entzun, hitz egin, irakurri eta idaztearen) sustapenean oinarritu behar da.

4

Valentzieraz ikasten duen ikasleak (PIL eta PEV) bi hizkuntza menderatzen ditu, oinarri eta jarrera hobeak ditu beste hizkuntza batzuk ikasteko eta, azterketek erakusten duten bezala, ikasle elebakarrak baino emaitza hobeak lortzen ditu hizkuntza-gaitasunetan lehen eta bigarren irakaskuntzen bukaeran. Horregatik, guk nahi dugun eskolan valentziera irakas-hizkuntza eta oinarrizko gaitasun bat izatearen alde egiten dugu, ingurunearen laguntzarekin betiere.

5

Eta ikasleek beren komunikazio-gaitasuna guztiz garatu dezaten, haurgarunak hizkuntzak ikasteko duen gaitasun handiaz baliatu behar da.



6

Eskolek behar hainbat autonomia izan behar dute hizkuntzak ikasteko metodologia egokiak hartu eta ezarri ahal izateko. Metodologia horiek irakasgaien arteko hesiak gainditu eta erabilera eleaniztuna erraztu behar dute.

areagotzeko ardura dutenak. Horrek ezinbestean eskatzen du irakasle-talde egonkor, kohesionatu eta koordinatuak, beharrezko programak aurrera eramateko.



7

Plan eleaniztunen ezarpenak maisu-maistren jarrera ona eskatzen du eta zuzendaritza-taldean sustapena, beraiek baitira hizkuntza-komunikazio gaitasuna egoki eta eraginkortasunez sustatu eta

8

Eskola eleaniztunak behar beste baliabiderekiko planifikatu behar du hizkuntzen tratamendua etapa guztietan. Teknologia berriek, hiztunen arteko elkarreraginak, ikasteko eta

komunikatzeko egoera errealek, hizkuntza-
eskakizuna betetzeak, bertako irakasleek,
hizkuntza-laguntzaileek, trukeek eta etengabeko



prestakuntzak... bat egin behar dute eskola-
ikaskuntzaren ibilbidean eta komunikazio-egoerak
egoki kokatu behar dituzte beren testuinguruan.

Zorroztasun handia behar da hezkuntza
eleaniztunaz hitz egiterakoan. Horregatik,
eskola kooperatiboak hiru printzipio izan
behar ditu abiapuntu:

- 1** Ikasleen artean hizkuntzekiko estimu eta begirunezko jarrera orokorra sustatu behar du eskolak; ideia hau sartzen asmatu behar du: hizkuntza bakoitza, bere hiztun aktiboen kopurua gorabehera, aldi berean ezagupen, balio eta tradizioen iturri eta gordailu dela.
- 2** Ikasleek komunikazio-gaitasuna garatzea lortzeko modurik onena geure inguruko hizkuntza-aberastasunaz baliatzea da: eskola valentzieraz egitea eta bere garaian beste hizkuntza batzuk ikasten hastea.
- 3** Plan eleaniztunen ezarpenak zuzendaritza-taldean eta irakasleen babesean oinarritu behar du, gizarte eleaniztunak eskatzen duen ahaleginean, eta baliabide egokiak izan behar ditu.



Argitaratzailea:

■ **UCEV**
Unió de Cooperatives
d'Ensenyament Valencianes

C/ Arquebisbe Majoral, 11
46002 València
Tel: 96 352 13 86
Fax: 96 351 12 68
E-mail: p.albors@fevecta.coop
Web: www.ucev.coop

Irudiak:
Miguel Calatayud

Diseinu Grafikoa:
Pablo Mestre & Associats, Coop.V.

D.L.: V-1.205-2011

1. Argitalpena: 03 / 2011
© UCEV: 2011

Argitalpen-laguntzaileak:

 **GENERALITAT VALENCIANA**
CONSELLERIA D'ECONOMIA, HISENDA I OCUPACIÓ

FEDERACIÓ VALENCIANA
FEVECTA
D'EMPRESES COOPERATIVES
DE TREBALL
ASSOCIAT

 **caixa
popular**

Argitaratuak:

declaració
EDUCATIVA 1 **LA SOCIETAT ACTUAL**
NECESSITA UNA ESCOLA
INCLUSIVA




22 x 12 cms.
48 orrialde
Valencià / Castellano
1. Argitalpena:
11 / 2009
Irudiak:
LaGRUAestudio

declaració
EDUCATIVA 2 **LA SOCIETAT**
NECESSITA UNA ESCOLA
PLURLINGÜE



22 x 12 cms.
48 orrialde
Valencià / Castellano
1. Argitalpena:
03 / 2011
Irudiak:
Miguel Calatayud



www.UCEV.COOP